

# Balmaseda XXI. mendearen ateetan

# Balmaseda ante el siglo XXI

José Manuel Azcona

Zenbat nazioz hainbat lurraldez osatuko litzateken europar estatu bakarra egiteko XVIII. mendearen amaieran Montesquieu-k izan zuen amets zaharra egia bihurtuaz doa astiro astiro. Politika-ekonomiazko makroegiturazko eskema orokor honetan, Europa Zaharraren lurraldeek beraien ahotsa entzuna izan dadila nahi dute, honetara, 1992. urtea gero eta hurbilago dugunez, abiadura handia hartuz doan berritasunaren trenean tokirik ez galtzeko. Hori dela eta, Euskal Autonomi Elkartearen agintariek, EEE-ren esparruaren barruan inguruan dituzten beste herrialde batzuetakoekin batera, europar antolamendu berria eratzerakoan herrialde bakoitzari dagokion tokia eskatu egin dute. Hau honela izango ez balitz, Euskal Herria ekonomiaren ikuspegiko zirkuitorik garrantzizkoenetik kanpo geratzeko arriskuan dago.

Antzerako zerbait esan genezake Enkarterriei buruz orokorrean eta Balmasedari buruz zehatzean. Santander, Burgos eta Arabako lurraldeekin mugeei buruzko ezbai eta zalantzazko oso historia berezia izanik, enkarterriak, nahiz eta (denok dakigun bezela) Bizkaiko lurralde historikoaren barruan beraien erakundeak eduki, ez dira Bizkaiko Jaurerria egituratzerakoan dagokien neurrian kontutan hartuak izan. Hau honela izan denez, Enkarterriek, bai Bizkaiko eta bai Euskal Herri osoko politika-ekonomiazko egituraketan betidanik eskatu izan dute partehartze handiagoa izatea.

Aintzina batetik, Balmaseda Bizkaia eta Santander-aren arteko elkargunea izan zen eta erromatarrek horrelaxe ulertu zuten, enkarterrietako hiri hau kantauri kostaldeko gunerik garrantzizkoenekin elkartzeko zeharkatzen zuen galtzada bat egin zutenean. 1199.

*El viejo sueño de Montesquieu a fines del siglo XVIII de crear un único estado europeo con tantas provincias como naciones lo constituyesen, poco a poco quiere ir haciéndose realidad. En este esquema general de macroestructura politico-económica, las regiones del Viejo Continente pretenden dejar oír su voz para no perder así asiento en el tren de la modernidad que toma rápidas velocidades a medida que nos acercamos a 1992. Es por ello que las autoridades de la Comunidad Autónoma Vasca, junto a las de otras regiones próximas dentro del ambito de la CEE se han apresurado a reclamar para sus respectivos territorios el protagonismo que merecen en la configuración del nuevo orden europeo. De lo contrario, el País Vasco corre el peligro de quedar fuera de los circuitos económicos más pujantes.*

*Algo parecido podríamos comentar acerca de las Encartaciones en general y de Balmaseda en particular. Con una peculiar historia de vacilaciones y titubeos fronterizos con las provincias de Cantabria, Burgos y Alava, la zona encartada no ha sido estimada en su medida como eje fundamental en la configuracion del Señorío de Bizkaia, pese a contar (como es bien sabido) con instituciones propias dentro de este histórico territorio. Es por ello que las Encartaciones siempre han reclamado mayores dosis de participación en la estructuración de las principales líneas político económicas tanto de la propia Bizkaia como del mismo País Vasco.*

*Desde la noche de los tiempos, Balmaseda fue un núcleo de enlace entre el Señorío y Santander, y los romanos supieron entenderlo así cuando trazaron una calzada que atravesaba la villa encartada para conectar los cen-*

urtean eta lehendik eratuta zeuden zenbait biztanlego-guneetan kokatuta, Balmasedako hiria sortzen da, Jaurerriko lehena izanik. Berehalaxe, gaztelar gainzabalaren eta euskal kostaldearen arteko geografiazko kokapen ezin hobeagoa izatearen ondorioz, aurrerapen handia izan zuen. Gainera, enkarterriko hiri honek, gaztelar artileak eta bizkaitar burniak Gaztelerrira itzultzen zireneko errepidea deitzen zenaren zatia izatea lortu zuen. Aurrerakuntzako egoera orokor honek XV eta XVI. mendeetan zehar iraun zuen, 1487. urteko juduen kanporaketak kalte egin bazion ere. XVII. mendearen erdi aldera Balmasedak krisialdi gogorra izan zuen, honek, hain mesedegarria gertatu zitzaion errepidea Urduñaren alde galdu zen XVIII. menderarte iraungo zuela. Hau zela eta, data hartatik aurrera, lehen aipatu ditugun merkatalgaiek ez zuten hiria zeharkatzen.

XIX. mendean, berriro ere Cantabria-rako komunikagune garrantzizkoa izateagatik, Balmasedak, 1794 eta 1877. urte bitarteko guda guztiak (Konbentziokoa, Independentziazkoa eta Karlistadak) jasan zituen. Gainera, Aro Berri osoan zehar Balmasedarentzat aberasbidea ziren burniolak, Bizkaian ezarri ziren Labe Handien gorakuntzaren ondorio logiko legez, gainberazko joera hartu zuten hemeretzigarren mendean.

XIX. mendearen amaieran eta gaudeneko mendearen hasieran Kadagua eta La Roblako burnibideak egiteak, aurrerakuntzako beste denboraldi bat suposatu zuen, biztanlegoa ere gehitu egin zelarik. Burniolen gainberazko prozesoaren amaierak, Guda Zibila eta gudosteko garaiaren ondoren, burniaren sektorearen birmoldaketa bideratu egin zuen, aintzina batean burniolak mugitzeko balio zuen zurea, ospe eta ekoizkortasun handia lortu duten itxura ederreko haltzariak egiteko erabiltzen delarik, gaur egun industri hau, espainiar beste lurralde batzuek (Levante aldea batez ere) egiten dioten lehiaren eta, zeharka baldin bada ere, 1986. urtean Espainia EEE-n sartzearen zioz ezarri den sektorearen birmoldaketaren ondorioz arriskuan dagoela.

*tros de más población y de mayor auge económico de la cornisa cantábrica. En 1199 y sobre núcleos poblacionales ya anteriomente configurados nace Balmaseda como villa siendo la primera del Señorío. De inmediato conocería una etapa de prosperidad motivada por su privilegiada situación geográfica entre la meseta castellana y la costa vasca. Además conseguiría la villa encartada formar parte del llamado camino real por el que transitaban las lanas castellanas y los hierros vizcainos de regreso a Castilla. Esta boyante situación general duraría durante los siglos XV y XVI aunque no hizo bien a la villa la expulsión de los judíos en 1487. Será a mitad del XVII cuando Balmaseda conozca una profunda crisis que se prolongará hasta el XVIII momento en el que se pierde el privilegiado camino real en favor de Orduña. Por esta razón, ya no cruzarían en adelante por la villa las mercancías antes citadas.*

*En el siglo XIX azotaron a Balmaseda todas las guerras contemporáneas entre 1794 y 1877 (Convención, Independencia y Carlistadas), por ser la villa encartada, de nuevo, importante enlace de comunicación hacia Cantabria. Además las ferrerías, fuente de riqueza para Balmaseda durante toda la Edad Moderna, entrarán en decadencia en el ochocientos como lógica consecuencia del auge de los Altos Hornos que se instalaron en Bizkaia.*

*La llegada de los ferrocarriles del Cadagua y la Robla a finales del XIX y comienzos del XX inauguró una nueva etapa de prosperidad con aumento de población incluída. El remate de la decadencia de las ferrerías propició tras el paréntesis de la Guerra Civil y la posguerra, la reconversión del sector del hierro aprovechándose, curiosamente, la madera que movían las ferrerías para fabricar muebles de elegante factura que han alcanzado notable fama y altas productividades, hoy amenazadas por la dura competencia de otras regiones españolas (Levante sobre todo); y por la reconversión del sector impuesta indirectamente por la entrada de España en la CEE en 1986. Es por ello que esta industria del mueble*

Hau dela eta, kalitate handiko balmasedar haltzariaren industri hau ez dago gaur egun bere garairik onenean.

Zurearen inguruko iharduera honekin batera, ekonomiaren ikuspegitik egoera ezberdinetan dauden beste industri batzuk ere badaude enkarterriko hiri honetan.

Hala ere, joandako garaietan eta baita gaur egun ere, Enkarterriek, ekonomiazko erritmoen eta gizartearen bilakaeren aldetik, «berezitasunak» dituzte Jaurerriko gainerako lurraldeekin konparatuta. Ez dugu ahaztu behar Abellanedako Batza, administrazioaren ikuspegitik, 1.800. urtean egin zela Bizkaiko erakundeen artekoa. Gainera, bere betidaniko «isolamendua», ondoan duen Santander-aren eragina eta bertako biztanleen arteko gazteleraren erabilerak, Enkarterrien berezitasunak gaur egunerarte mantentzea bideratu egin dute. Zeren eta, Enkarterrietako zerbitzuak hobetzea ez baita nahiko. Bizkaiko alderdi hau eta, zehatzean, Balmaseda, daudeneko merkataritza-baretasunetik aldendu egin behar dira. Euskal Autonomi Elkarteko langabeziko ehunekorik handienetariko batekin, Enkarterriak krisialdiaren eragipen zuzenean daude, krisialdi honek, lehen esan dugun bezela, zurearen arloan aurkitu duela tokirik onena.

Dena dela, inorentzat ez dira garai onak. Birmoldaketa ezberdin, zenbatezinezko langorabehera eta odolez bustirik dauden politikazko arazoen ondorioz denontzat ezaguna den merkataritza eta industriazko kaltea jasanik, Bizkaia ez dago gaur egun bere betidaniko ekonomi-aurrerakuntzarik gailenean. Balmasedak, 2.000. urtea gertu dugula, gaur egun kalteak jasatzen dituzten bere merkataritza-parametroak berrindartzea planteatzen du, aldi berean bere tradizioak eta iraganaren erroak berreskuratzeko saiatzen den bitartean, honetara, enkarterrietako hiri honek, berritasunaren bidetik atera gabe, garai hobeagotan izan zuen historiazko esanahia berriro lortu dezan.

*balmasedano -de notable calidad- no conoce hoy sus etapas más doradas.*

*Junto a esta actividad en torno a la madera conviven otras industrias de repuesto en la villa encartada que atraviesan periplos económicos de desigual fortuna.*

*Cabe destacar, sin embargo, que las Encartaciones, hoy como en tiempos anteriores, mantiene ritmos económicos y evoluciones sociales un tanto «autónomas» en relación con el Señorío. No hay que olvidar que la Junta de Avellaneda no forma parte (administrativamente hablando) de las instituciones de Bizkaia hasta 1800. Además, su tradicional «aislamiento» geográfico en contacto con influjos de la vecina Santander y el uso común del castellano entre sus habitantes han propiciado que el secular particularismo de las Encartaciones se haya mantenido hasta la actualidad. Y es que no es suficiente la mejora de los servicios en la zona. Esta parte de Bizkaia y concretamente Balmaseda deben salir de la apatía mercantil en la que se hallan. En efecto, con una de las cotas de paro más elevadas de la Comunidad Autónoma Vasca, las Encartaciones sufren en sus propias carnes el azote de la crisis que -como ya hemos mencionado-ha encontrado en el sector maderero a su mejor cliente.*

*Pero no son buenos momentos para nadie. Con un deterioro comercial e industrial bien conocido, producto de reconversiones variadas, conflictividades laborales sin número y dramas políticos bañados en sangre, Bizkaia no se halla ahora en la cresta de la ola de su tradicional pujanza económica. Balmaseda ante la llegada del año 2000 se plantea el relanzamiento de sus ahora deteriorados parámetros comerciales, mientras lucha por recuperar sus tradiciones y raíces del pasado, que a su vez hagan posible que la villa encartada no pierda el carro de la modernidad para volver a situarse en el pedestal histórico en el que estuvo ubicada en tiempos de mejor fortuna.*